

Le 20 mars 2024

## COMMUNIQUÉ DE PRESSE

# KORRIKAREN HELTZA Baionak euskara ospatzen du 2024ko martxoaren 24a igandea



**AEK-ak antolatzen duen 23. Korrikak Euskal Herria zeharkatzen du Irundik Baionara martxoaren 14tik 24ra, Harro Herri leloarekin herri harroa hitzekin itzul daitekeena. Aurten, Brebeta eta Batxilergoko azterketak euskaraz pasatzeko eskubidea aldarrikatzen duen Azterketak Euskaraz kolektiboa omentzen du. Zazpi probintziak eta 2.700 km baino ehiago zeharkatu ostean, errelebo lasterketa Baionara helduko da, bere azken etapara, martxoaren 24an, igandea, 12:30ak aldera, Askatasuna plazara. 13:30tik goiti besta handia izanen da, animazio ugarirekin. Baionako Hiriak eta Euskal Hirigune Elkargoak bat egiten dute mobilizazio honekin, martxoaren 24an, igandean, lasterketaren etorrera eta egun osoan zehar aurreikusitako programazioari ongi etorria emanaz. Jean-René Etchegaray-k, Auzapeza eta Euskal Hirigune Elkargoko lehendakariak Antton Curutcharry-ri lekukoa luzatuko dio, 10h58ak aldera, Capitaine Resplandy kaian.**

Irundik Gipuzkoan, joan den martxoaren 14 abiatuak, Korrika 23. edizioak bere ibilbidea bukatuko du martxoaren 24an amaituko du Aturri ibaiaren ertzetan. Baionak jadanik Korrikaren etorrera ospatu zuen 2013an. 20.000 korrikalari eta ibiltari baino gehiago ibiliko dira kasik 17 km-ko ibilbidean Baionako bi ertzetan. Baionako lehen sarrera 09:30etik goiti egingen da, Polo-Beyris auzotik Maréchal Saoult etorbidera, Akitania etorbidera eta ondotik Hiriburura abiatuko da. Gero, bigarren itzulia goizean, Resplandy kapitainaren etorbidetik, non Auzapez jaunak, Jean René Etchegaray eta Xabier Parrilla Etchart, hizkuntza politikarako auzapezordeak, herriko kontseiluko hautetsiekin eta borondatezko eragileekin batera, lekukoa ehunka metroan ermateko pribilegioa ukanen baitute (2763 km 10:52etan), Elkargoko lankideei,

Antton Curutcharry, Kultura eta Hizkuntza Politikako lehendakariordea, Joseba Erremundeguy, Europako Harremanetarako eta Mugaz Gaindiko Lankidetzarako kontseilari ordezkariari helarazi aitzin **(2764 km 10:58etan)**.

Azken kilometroa eta helmuga ohikoak izanen dira, Paulmy etorbidetik jaitsialdi bat egingen da, Grenet zubia zeharkatuko da eta bukaera bat Lesseps kariatik eta San Izpiritu zubitik pasatuko da Herriko Etzerako plazara heldu aitzin 12:30 aldera.

12:30ean Baionara heltzean, Merkatuko plaza, Xaho kaia, Paul-Bert plaza eta Patxa plaza animatuko dira. Hiru agertokitan, karrikako animazioek errodaturik, euskarazko kontzertuak eskainiak izanen zaizkie publikoari. Nagusiki Ipar Euskal Herrikoak diren taldeek segurtatuko dituzte. Xaho kaian zikiro haundi bat proposatua da, eta animazio gune bat eskainia zaie hurrei. Besta denbora hori ere Korrikaren izpirituari lotua da, batez ere eta oroz gain, Euskal Herriko biztanleen artean partekatze une bat izan nahi baita. Baiona Hiriak ongi ulertu du, eta ondorioz antolatu da, egiten dakien bezala, milaka partaideak segurtasunez hartzeko.

Korrikaren etorrerari ongietorria emateko Baiona Hiriak hartutako engaiamenduak guztira 80.000 euro suposatzen ditu.

**EGITARAUA, IZEN EMATEAK ETA ORDUTEGIAK > korrika.eus**

### **Baiona Hiriak bere euskarari buruzko lehen eskema onartu du.**

#### **100 ekintza euskararen alde.**

Euskara Euskal Herriaren historiaren eta nortasunaren osagai da, eta bereziki Baionarena, frantsesarekin eta gaskoiarekin batera. Euskararen aldeko engaiamenduak berretsi nahirik, euskararen erabilpenak gibelamendu tiki bat duen unean, Hiriak osoki atxikitzea hautatu du, lurraldean sekula ikusi ez diren proposamenak dituen estrategia berri baten eguneratzeko eta finkatzeko, eta hizkuntza eta bere erabilpena dinamizatzeko, elkarte eta instituzio partaideekin batera. Hizkuntza politika honen helburua da hiriko hiztun kopurua handitzeko gaitasuna, hizkuntzaren maila orokorra hobetzea eta ahalik eta jende gehienari euskaraz komunikatzeko gogoia piztea.

Hizkuntza politikarako eskema berri honek, euskararen aldeko elkarlan baten emaitza eta aho batez onartua, 100 ekintza aurreikusten ditu 2024-2030 tartean. Urte anitzetako estrategia batean oinarritzen da, euskara belaunaldi gazteen artean transmititzeko eta biziarazteko, euskara Baionako hirian eta bere auzoetan sustatzeko eta partekatzeke, eta euskararen presentzia eta erabilera indartzeko hiritarrentzako zerbitzuetan.

### **Euskal Hirigune Elkargoak euskara eremu publikoetan biziarazten du eta zerbitzu publiko eleaniktzak garatzen ditu**

Biztanleria aktiboak euskaldun gutien dituen testuinguru soziolinguistikoan, helduei euskara erakastea ezinbesteko tresna da helburu hori lortzeko. Horrela, Euskal Hirigune Elkargoak lurraldeko formakuntza zentroekin eta bereziki AEK-rekin lan egiten du bere eragileak euskararen inguruan sentsibilizatzeko eta trebatzeko. Eragile berri bakoitzak euskarari eta erakundeak garatutako hizkuntza politikari buruzko informazio denboraz baliatzen da, interesddun izan dadin. Agente boluntarioei ere urtero eskaintzen zaizkie euskara eta euskal kultura ikasteko ikastaroak. Gainera, erabat euskaldundu nahi dutenek euskarazko lanbide heziketa programan sartu ahal izanen dute. Hori gertatzen da aurten, 50 agentek lan egiten dute aisialdi, kultura, garapen ekonomiko eta abarretan. Azkenik, sartze bakoitzean, Euskal Hirigune Elkargoak, Euskararen Erakunde Publikoarekin eta lurraldeko ikastegiekin elkarlanean, komunikazio kanpaina bat hedatzen du, helduak euskara ikastera animatzeareko.

### **Korrikaren heltzea: aparkatzea eta zirkulazioa**

Edozein ibilgailuren zirkulazioa debekatua izanen da une batez martxoaren 24an, igandez, 09:00etatik 12:30era arte, parte hartzaileek Korrikaren ibilbidean egin duten aurrerapenaren arabera (korrikaApp aplikazioan ikusten ahalko da). Edozein ibilgailuren zirkulazioa erabat debekatua izanen da martxoaren 23tik, larunbatez, 12:00etatik, martxoaren 25era goizeko 06:00ak arte. Lasterketa denboran, Euskaldunen plaza eta Charles-de-Gaulle aparkalekuak aldi batez hetsiak izanen dira.

Txik Txak garraio zerbitzu publikoak asaldatuak izan daitezke 11:30 eta 14:00 artean, bereziki Herriko Etxeko sektorean. T1 eta T2 lineak indartuak izanen dira egunean zehat eta 00:30ak arte ibiliko dira. Informazioak txiktxak.fr webgunean eskura daitezke. Salbuespen gisa eta egun osoan, estalpeko aparkalekuak irekiak eta ordaindu beharrekoak izanen dira, eta itxiturako aparkalekuak doakoak izanen dira. Arrazoi praktikoentzat, Glain-eko aparkalekuko hesiak altxatuak izanen dira.

**Zirkulazio eta aparkaleku mugatze guziak bayonne.fr gunean kontsultatzen ahal dira.**

Relations presse de la Ville de Bayonne - 05 59 46 63 01 - [presse@bayonne.fr](mailto:presse@bayonne.fr)